

2020. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2019ko urriaren 18an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2019/12/23. 244. zk.

## **HIRIGINTZA ETA INGURUMEKO ZERBITZUEN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **1. artikulua. IZAERA ETA OINARRIA**

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko eta Tokiko Ogasunen 9/2005 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrira, udal honek urigintzako eta ingurumeneko zerbitzuen tasa eskatuko du ordenantza fiskal honetan xedatutakoaren arabera.

### **2. artikulua. EGITATE EZARGARRIA**

Tasaren egitate ezargarria udalaren jarduera teknikoa eta administratiboa da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak aipatzen dituen eta udal mugartean egin beharreko eraikuntza-ekintzak eta lurzorua erabilera aipatutako Legean eta indarrean daude gainerako xedapenetan jasotako hirigintza, eraikuntza eta poliziari buruzko arauetara egokitzen diren egiaztatzeko, baita kontrol, ondorengo egiaztapen eta ikuskaritza jarduera ere, aurretiazko jakinarazpen erregimenpean, eta, oro har, ikuskaritza, kudeaketa eta hirigintza-planeamenduekin eta bestelako zerbitzu teknikoen aurkezpenarekin lotutakoak.

### **3. artikulua**

Aipamen gisa, epigrafeetan zerrendatutako ekintzak dira tasa honen egite ezargarriak eta bereziki honako honeek:

a) Jarduera horren helburua lurzorua araubidearen eta uriko antolamenduaren ganeke Testu Bategina onetsi dauen apirilaren 9ko 1346/1976 E.D.ren 178. artikuluan lurzorua erabilerearen eta eraikuntzaren inguruan agertzen diran ekintzak egiaztatzea da, hain zuzen be eta udalerrian egin beharreko ekintzak bat datozen lege horretan eta Arau Subsidiarioetan eraikuntzen uriko arauakaz eta poliziagaz

b) Urigintzako planeamendu eta kudeaketako zerbitzuak emotea, partikularrek halan eskatuta.

c) Industria eta merkataritzako establezimentuek segurtasun, osasun, osasungarritasun eta garbitasun baldintzak betetzen dituen ala ez egiaztatzeko udal jarduera, baita udalaren edo erakunde guztien ordenantzan eta erregelamentuan eskatzen diran baldintzak be lokala zabaltzeko lizentzia eskuratu ostean. Helburua ekintza gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsuak saihestea da.

d) Eraikuntzen eta higiezinaren segurtasun, osasun eta apintasun publikoari jagokozan balditzen kontsultak eta ikuskapena gauzatzeko udal jarduera, baita, horren inguruko espedienteak tramitatzea be eta aginduak emotea.

e) Herri jabariaren erabilera eta aprobetxamendurako lizentziak

f) 2187/1978 lurzorua eta hiri antolamenduaren arautegiari buruzko Errege Dekretuak 29. artikuluan xedatutako lizentzia bako obren edo egite aginduei buruzko udal jarduera.

g) Tokiko entidadeen zerbitzuen arautegian aurreikusitako udal jarduerak

#### **4. artikulua. SUBJEKTU PASIBOAK**

1.- Tasa honetako subjektu pasiboak dira zerbitzuak eskatu, eragin edo interesa daukien pertsona naturalak edo juridikoak, edo egoera arriskutsuan dagoan eraikineko elementuen jaubeak diranak, udal administrazioak lizentzia, egiaztagiri, txosten edo jarduketa eragin daualako.

2.- Era berean, Tributuen Arau Orokorren 34. artikuluan aitatzen diran erakundeak edo pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira subjektu pasiboak jaubeak badira, edo, halan danean, eraikuntzak edo instalazioak egiten diran edo lanak egiten diran higiezinaren errentariak.

3.- Edozelan be, subjektu pasiboaren ordezkotak honakotak dira:

- Eraikuntza, instalazio eta obrei lotutako kasuetan eraikitzaileak eta kontratistak .

- Pasabide lizentzietan: lokalen jabeak

- Aurrien prebentziotak, eraikuntza eta eraispenak, salbamenduak eta, oro har, pertsonak eta ondasunak babesteko zerbitzuak egiteagatik ezarritako tasetan - halakoen barnean sarturik dago zerbitzua mantentzea-, arriskua aseguratzen daben erakunde edo sozietateak.

Horregaitik lizentziak edo udal jarduna eskatzea, kasuz-kazu, eraikitzailea, kontratistea, jabea edo arriskuaren aseguratzailea nor dan bere datu guztiekaz identifikatuta deklaratu beharko da.

#### **5. artikulua. ERANTZULEAK**

1.- Subjektu pasiboaren betebeharren erantzule solidarioak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorren 38.1, 39 eta 41 artikuluetan aitatzen diren pertsona fisikoak edo juridikoak.

2.- Erantzule subsidiarioak izango dira sozietateen administratzaileak eta sindikoak, porroten, lehiaketen, sozietateen eta oro har erakundeen kitatzaileak edo esku-hartzaileak, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## 6. artikulua. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

1- Kultura eta gizarte herriko elkarteak edo taldeak eskatutako herri jabariaren okupazinoei jagokezan lizentziak tasa ordaintzea salbuetsita eukiko dabe.

2- Herrikoak ez diran elkarteek kulturaren mesederako edota gizarte laguntzarako eskatzen dabean herri jabariaren okupazinoei jakokezan lizentziak tasa ordaintzeko salbuetsita egon daitezke edo hobariaren bat aplikatu ahal izango jake, beti be, udal organo erabakitzaileak lizentzia emotean salbuespena edo hobaria be onartzen badau.

3- 2. epigrafean aurreikusita dagozan ekimen pribaduak bultzatutako planeamenduko tresnak tramitetearen kuotak %80ko hobaria eukiko dabe bultzatzen dauan pribadua norbanakoa danean eta etxebizitzei edo baserriei lotutako planeamendu tresnak diranean. Etxebizitza kooperatibak be tratamendu bera eukiko dau.

## 7. artikulua. TASAREN KUOTA

Egite ezargari bakoitzerako tasa kuota epigrafe hauetan finkatutakoa da:

	2020 (€)
<b>Jarduera tekniko eta administratiboaren deskribapena</b>	
1.-Urigintzako kargak baliogabetzea	1.891,76
2.-Planeamenduko tresna hauek tramitatzea, ekimen pribatuak bultzatuta:	
2.1- Urbanizazio proiektua	472,92
2.2-Ekimen pribatuak bultzatutako xehetasun azterlanak	7.197,41
2.3- Ekimen pribatuak bultzatutako xehetasun azterlanen aldaketa	4.318,45
2.4- Ekimen pribatuak bultzatutako urbanizazio proiektua	7.197,41
2.5-Ekimen pribatuak bultzatutako urbanizazio proiektuen aldaketa	4.318,35
2.6- Ekimen pribatuak bultzatutako errepartzelazio proiektua	7.197,41
2.7- Ekimen pribatuak bultzatutako errepartzelazio proiektu aldaketa	4.318,45
2.8-Ekimen pribatuak bultzatutako plan berezia	7.197,41
2.9- Ekimen pribatuak bultzatutako plan bereziaren aldaketa	4.318,45
2.10- Ekimen pribatuak bultzatutako plan partziala	7.197,41
2.11- Ekimen pribatuak bultzatutako plan partzialaren aldaketa	4.318,45
2.12- Ekimen pribatuak bultzatutako plan orokorraren aldaketa	4.318,45
2.13- UJP prestatzea (urbanizatzeko jarduketa programea)	7.197,41
2.14- UJP Aldatzea	4.318,45
3.-Urigintza aprobetxamenduen transferentziak	1.517,32

4.- Urigintzako txostenak, zedulak eta kontsultak:	
4.1- Urdaibako Erreserba Biosferaren Patronatura bialdu barik	110,53
4.2- Urdaibaiko Erreserba Biosferaren Patronatura bialduta	150,75
4.3- Lerrokadurak eta sestrak ipintea	90,45
5.- Neurketak eta egiaztapenak	281,37
6.- Bizigarritasun edo eraikina lehenengoz hartzeko lizentzia	1.045,17
7.1- Urbanizazio berriak hartzea	1.616,88
7.2- Urbanizatzeko jarduketa-programak	567,34
7.3- Hitzarmen-sistema: hitzarmen-batzarra	567,34
8.1- Zabaltzeko lizentziarik ez dela behar egiaztatzen duten agiriak	25,08
9.- Jabari publikoa erabiltzeko edo aprobetxamendurako lizentziak (lizentzia ondoriozko okupazio tasatik aparte:	
9.1- Herri guneak erreserbetako lizentzia	371,81
9.2- Aldi baterako pasabideak (plakak barne)	432,10
9.3- Pasabide iraunkorrak (plaka barne)	396,95
9.4- Ostalaritza establezimenduetako terrazak -mahaiak eta aulkiak	57,72
9.5- Azokatxoko postua	68,29
9.6- Beste ordenantza fiskalen baten espresuki aurreikusita ez dauden bestelako erabilera edo aprobetxamenduak	33,32
9.7- Pasabide iraunkorren plaka barria edo aldi baterako pasabidearen plaka barri bakotxa	16,93
10.- Desjabetzak	567,34
11.- Lurzoruaren udal ondareen eta orubeen erregistroaren gestinoa:	
11.1- Orubea erregistroan sartzen denean	434,85
11.2- Orubea nahitaez saltzen danean: salmentaren esleipen balioaren %1,5	
12.- Aurri espedienteak:	
12.1 Jaube bat	580,73
12.2 -Jaube bi eta lau bitartean	1.734,14
12.3- Bost eta bederatzi jaube bitartean	4.065,23
12.4 - Hamar jaube edo gehiago	5.807,48
13.- Aginduak:	
13.1- Obrak egiteko agindua: Obra horri jagokon tasea %50 gehituta. Gitxieneko zenbatekoa: 820,00€	850,81
13.2- Obra bako egite aginduak	350,21
14.- Higiezinaren egoeraren ganeko txostenak	339,84
15.- Ordezko ejekuzioak:	
15.1- Obra eta eraispenen ordezko ejekuzinoa, obraren kostutik aparte	1.221,21
15.2- Segurtasun, osasun eta apintasun publikoari dagokien agindua ez betetzean ordezko exekuzioz egindako garbiketa edo bestelakoak, egin beharrekoaren kostutik aparte	610,60

16.- Hornikuntza-zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten partikular edo enpresek zorupean kableak, hodiak edo antzeko elementuak izango dituzten instalazio berriak, jabari publikoko lursail edo bideetan egin beharrekoak, egiteko lizentziak	572,64
17.- Erabilera aldaketa eskariak (lokala etxebizitza izateko eta horrelakoak), obra lizentziatik aparte	400,75
18.- Etxe babestu eta tasatuen kudeaketa (promotorearen ordezkari udal administrazioak egindakoa), etxeko	1.334,18
19.- Baimena behar duten ekintza pribatuak :	
19.1- Etxebizitza tasatuen salmentak edo baldintzak aldatzea baimentzea	33,35
19.2- Salmentarako edo eskuz aldatzeko baimena behar daben bestelakoen baimena	33,35

## 8. artikulua. SORTZAPENA

Tasea ordaindu beharra egitate ezargarria dakarren udal jarduera hasten denean sortuko da. Horretarako, edozelan ere, jarduera hasi egin dela ulertuko da subjektu pasiboak eskabidea edo beste agiriren bat aurkezten duen egunean.

## 9. artikulua. KUDEAKETA ARAUAK

1.- 9.04., 9.05. eta 9.06 epigrafeetan agertzen diran zerbitzuak emoteagatiko tasea autokitapen araubidean eskatuko dira, eta subjektu pasiboak, eskabidea aurkezten dauanean, zorraren zenbateko osoa ordaindu izana egiaztatu behar dau. Ostantzean lizentzia eskaria ez da izapidetuko.

2- Beste kasu guztietan, Tributu Kudeaketa Sailak egingo du kitapena, udal organoen erabakietan oinarrituta edo espedienteak izapidetu dauan sailak barri emonda.

3.-Tasea esandako edozein modutan sortuta, zenbatekoa ordaindu beharko da. Eskatzaileak uko egiteak edo gaxerexeteak ez dau ekarriko ez ordaindutakoa itzultzea ez egindako kitapena balio barik uztea.

4- Jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendurako lizentziei jagokezan 9. epigrafeko zenbatekoak lizentziari berari jagokezanak diran ezkerro, ez dau kentzen erabilera edo aprobetxamenduari jagokezan tasea ordaindu beharra bakoitzaren ordenantza fiskalaren arabera.

## 10. artikulua. ZERGA HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK

Zerga arau-hausteen eta horreen kalifikazio desberdinen inguruan, baita kasuan kasuko zigorraren inguruan be, Tributuen ganeko Foru Araua eta Zergen Kudeaketa, diru-bilketa eta zerga ikuskapenen ordenantza orokorreko arauak aplikatuko dira.